

## ARRATIAK BIZI NAHI

1

Arratiako zekorra  
txikerra baina gogorra.  
Bere izatez bizia da ta  
zereginean bizkorra;  
orain artian beti izan da  
frutuetan emonkorra.

2

Arratiako errazak  
badaukaz onaren trazak.  
Onean onak dira benetan  
alkar laguntzen demasak;  
baina txarrean, alkar hartuta,  
sekulako barrabasak!

3

Euskaldun eta fededun  
Arratian ez bada, nun?  
Bere euskera, bere ohiturak  
edonun dira ezagun;  
galduak galdu, oraindik ere  
Arratian zer daukagun!

4

Trikitilari, alboka,  
bardin kantuz ta zantzoka.  
Euskal kulturaz aberatsa da  
Arratiako azoka;  
joko bardinez, ezetz gelditu  
azkenak nor gehiagoka.

5

Praile, monja ta abade,  
ez da etxerik ha gabe.  
Eleiz, ermita, errogatiba,  
holakotan zer ez dabe...  
Han Gorbeiaiko Gurutze deuna  
guztien jaun eta jabe.

6

Arratiako ibarra,  
badozu zaindu beharra.  
Zeinek erein dau zure soloan  
kalteko txominbedarra?  
Zaindu egizu Arratia zeuk,  
oi Domingo dimostarra!

7

Bada hainbeste denpora  
sartu zan Bizian Gora.  
Edadetuok, geuretzat dala  
ekarri daigun gogora;  
belu baino lehen, batu gaitazan  
danok alkarren ondora.

8

Igorren ta Zeanurin  
luzaro dabiz martxan fin.  
Areatza ta zu, Arantzazu,  
Lemoa ta Dima bardin,  
Arteaga ta Bedia batu  
gaitazan geu alkarrekin!

9

Sinismena ta euskera  
Bizian Goran batera.  
Gure eskola Barri Ona da,  
geuk dakiguna, gainera;  
beste guztia Espirituak  
emoten dau jakitera.

10

Hau zuei gaur esatia  
zan gure borondatia.  
Guk zaharrok behintzat ipini daigun  
tokatzen jakun partia;  
kristau euskaldun orain ta beti  
izan dedin Arratia.

A. Martzel